BERRIKUNTZA SAILA

48370 BERMEO
BIZKAIA

**Erref.:** 2025/IDA_DEK0637

**JAGOKON SAILARI BARNE KOMUNIKAZIOA**

2025/09/05(e)(a)n **2025 - 000005756** zenbakia daukan ALKATETZA DEKRETUA onartu dala jakinarazoten deutsu(e)t:

2025EKO SANTA EUFEMIA EGUNEKO BASERRI GIROKO AZOKAKO POSTU BATEN ESLEIPENA ONARTZEA.

## Xedea

2025eko Santa Eufemia eguneko baserri giroko azokako postu baten esleipena onartzea.

## Aurrekariak

Lehenengoa: 2025eko uztailaren 17ko 2025/4664 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartu dira, 2025. urteko Santa Eufemia azokako postuen oinarriak, eranskinak eta deialdia zabaltzea, 2025eko irailaren 16an Bermeoko Lameran ospatuko den baserri giroko azokan ondare publikoaren erabilera baimentzeko.

Bigarrena: 2025eko irailaren 1ean, 2025. urteko Santa Eufemia azokako postuak aukeratzeko oinarrietako 6. puntuan adierazten den moduan, postuen banaketa proposamena egiteko Kultura Sailak dokumentazioa aztertu du eta postuen esleipen proposamena egin du.

Hirugarrena: Ebazpena 2025eko irailaren 5ean, 2025/5744 zenbakidun Alkatetza Dekretuz, 2025eko Bermeoko Santa Eufemia eguneko baserri giroko azokako 41 postuen esleipena hartu da.

Laugarrena: 2025eko irailaren 1ean, 2025/12409 zenbakidun sarrera erregistroarekin, Mª Encarnación Fernandez Lauzirika andreak Santa Eufemia eguneko azokan postu bat edukitzeko eskaria egin du, abalorioak saltzeko.

Bosgarrena: 2025eko irailaren 2an, 2025/12460 zenbakidun sarrera erregistroarekin, Josu Urkidi Elortegi-Jon Guarrotxena Laiunok Santa Eufemia eguneko azokan postu bat edukitzeko eskaria egin du, janzteko produktuak saltzeko.

Seigarrena: 2025eko irailaren 5ean, 2025/12649 zenbakidun sarrera erregistroarekin, Txomin Bilbao Etxebarria-Arkaitz Bilbao Ozamizek Santa Eufemia eguneko azokan postu bat edukitzeko eskaria egin du, ortuaria saltzeko.

CSV: 07E90014053C00G4C1Z7B4H9F0

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E90014053C00G4C1Z7B4H9F0 | Sinadurea eta datea: JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-G.O. ZUZENDARIA - 05/09/2025 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/09/2025 18:48:02 | DOCUMENTO: 20251312060 Datea: 05/09/2025 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

Zazpigarrena: 2025. urteko Santa Eufemia azokako postuen oinarrietan, udalak postuak hutsik geratzen badira, gonbidapenak egin ahal ditu baina kasu honetan, hiru eskaera erregistratu dira. Hiru eskaeren artean, Txomin Bilbao Etxebarria-Arkaitz Bilbao Ozamizen eskaera azokaren helburuekin eta filosofiarekin bat dator.

**Argudioak**

Lehenengoa: Ekainaren 13ko 1372/1986 EDren, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena, 75.1.b) eta 77.2 artikuluak eta azaroaren 3ko 33/2003 Administrazio Publikoen Ondarearen Legearen 92. eta 137.4.d) artikuluak kontuan izan dira.

Bigarrena: Apirilaren 7ko 2/2016 Euskadiko Legeko 17. artikulua kontuan hartuta, eta Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.q) artikulua kontutan hartuta, alkatearena da baimenak emateko eskumena.

Hirugarrena: Baimen honek udala eta eskatzailearen artean ditu eraginak, jabetza eskubidea salbu eta hirugarrenen kalterik gabe ematen da, edozein momentutan ezeztatu daiteke eta baimendutako epea bukatzerakoan iraungiko da.

**Erabakia**

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, honako hau erabaki dut:

LEHENENGOA: 2025eko Santa Eufemia eguneko baserri giroko azokako postu baten esleipena Txomin Bilbao Etxebarria-Arkaitz Bilbao Ozamizeri onartzea, oinarrietan oinarrituta.

BIGARRENA: Alaiki Zerbitzu Gizakulturalak S.L. enpresan 2025eko Santa Eufemia eguneko baserri giroko azokan postua lortzeko esleipendunari dokumentazioa aurkeztu beharko duela jakinaraztea.

HIRUGARRENA: Dekretu hau Bermeoko web orrian Berrikuntza Sailari argitaratzeko agindua ematea.

LAUGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran Dekretuaren berri ematea.

Honen guztiaren barri emoten deutsu(e)t jagokozan ondorioetarako.

**Oharra:** sinadurea eta datea orri-oinean .

CSV: 07E90014053C00G4C1Z7B4H9F0